

BAIONA

Euskal ahoskeraren ikerketaren nondik norakoa aztergai Baionan

Gaur eta bihar mintegia egingo dute Baionako Fakultatean ahots teknologia ezagutzeko eta jendea mota horretako ikerketara hurbiltzeko helburuarekin

Mikel Basabe • Baiona

Euskararen batasunak bide luzea egin du, duela 22 urte abian jarri zenetik. Erabilera normaldu egin da, eta duela urte batzuk eztabaidarako ziren kontuek ez digute, gaur egun, arazorik eragiten. Baina bada oraindik zer egin: ahoskera, adibidez, batu gabeko eremutzat har genezake.

Beharbada horregatik, beharbada ikerketa eremu erakargarria delako baino ez, gero eta ikerlari euskaldun gehiago ari da euskararen fonologia eta fonetika aztertzen. Baionan ere zer edo zer egin beharko litzatekeela pentsatu zuten Beñat Oiharzabalen zuzendaritzapean diharduten Iker-Umr 5478 ikerketa taldekoek. Horretarako, Aholab, Bilboko Ingeniari Eskolako Ahots laborategikoe-kin hartu-emanetan jarri ziren, azken horretan, Inma Hernaez zuzendari dutela, euskararen sintetizatzailearekin zein ahotsa aztertzeko tresnariarekin lanean baitabiltza.

Ikasleei zuzendua, guzientzat zabalik

Mintegia egitea erabaki ostean, zein eduki eman gura zioten eraba-



Jasone Salaberria, Euskal Ahoskera mintegiaren antolatzaileetarikoa bat.

kitzea izan zen hurrengo urratsa; hau da, zein jende multzori zuzendu: dagoeneko alorrean aditu direnei, ala ahoskeraren ikerketarekin loturarik izan ez baina hura erakargarri izan dezaketenei? Erantzuna antolatzaile beharretan aritu den

Jasone Salaberriak eman digu: «Mintegi hau ikasleei zuzendutakoa da, lizentziaturakoei zein irakasletzakoei. Izan ere, gaurko eta biharko saioak ahoskeraren alor zabalaren erakusleihotxoa izatea pentsatu dugu». Horregatik,

Salaberriaren esanetan, «fonologia, teknologia eta lan ikerketak uztartuz, mintegira etorriko direnei eremu honen zatiño bat dastatzeko parada emango diegu».

Horrela, bada, Baionako unibertsitate-ikasle guztiek, eta Lapurdiko hiriburura joaten diren guztiek ere Euskal Ahoskerarekin hitzordua dute, gaur eta bihar, egun osoz, Baionako Fakultatean.

Gaurko eta biharko saioak euskal ahoskeraren alor zabalaren erakusleihotxoa izatea pentsatu dute antolatzaileek

Egitaraua

Gaur, hilak 13

09:00etatik 10:15era. Sarrera, Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi: Euskara batuarentzako azentu-eredu bila.

10:15etik 10:45era, atsedendia

10:45etik 12:00etara. Iñaki Gaminde: Euskal azentuak: ikerketen oraina eta geroa, azentu tipologia, marko teorikoa, euskal azentuen sailkapena, irizpideak, barietateak, ikerturiko barietateen ezaugarriak, ondorioak.

Arratsaldean, ahozko korpusa jasotzeko irizpideak:

14:00etatik 15:15era. Iñaki Gaminde: Helburuak eta xedeak, korpusaren erabiltzaileak, lekukoaren ezaugarriak.

15:15etik 15:45era, atsedendia.

15:45etik 17:00etara, gaiak, galdekizunak, galdekizunaren material osagarriak, tresneria.

Bihar, hilak 14:

09:00etatik 12:00etara. Euskarazko intonazioaren azterketa eta sintesia. Eva Navas, Ion Sanchez, Inma Hernaez eta Imanol Madariaga.

09:00etatik 10:15era, sarrera. Intonazioa: garrantzia eta eredu desberdinak. Fujisakiren intonazio ereduak. Eredua bat lortzeko ibilbidea. Ahost materiala. Datu-basea markatzen, datu-basearen intonazioa etiketatzen. E-mailtzak.

10:015etik 10:45era, atsedendia.

10:45etik 12:00etara, laborategiko lanak: seinaleen azterketa oinarrikoak: espektrograma, pitch kurbak, indar kurbak etab.

14:00etatik 15:00etara, ikerketa lanen aurkezpena.

14:00etatik 15:15era, Gorka Elordieta: Euskal Intonazio aztertzeko lehenengo urratsak. Oinarri teorikoak, euskalkien intonazio ereduak: Bizkaiko iparralde, Gipuzkoako erdialdea, Goinafarrera.

15:15etik 15:45era, atsedendia.

15:45etik 17:00etara, Bittor Hidalgo, prosodia esaldiaren egitura informatiboaren laguntzan.

EHU

EHUren Arabako campusak eta Arabako Enpresarien Sindikatuak lankidetza sinatu dute

Erredakzioa/Bilbo • Euskal Herriko Unibertsitateak Aeronautika gela izango du, Industria eta Telekomunikazioetako Bilboko Goi mailako Eskola Teknikoan, azken ikasturteetako ikasle direnek Ingeniari-tza Aeronautikoaren teknikarik aurreratuena ikasteko aukera izan dezaten, hori baita industria aeronautikoaren sektoreak eskatzen duena.

Aeronautika gelan espezializazio ikastaroa eskainiko da, teknologia aeronautikoaren jakintza arlokoa. Aurreiku-

sitakoaren arabera, urtean lau bider antolatuko da espezializazio ikastaro hori, eta, guztira, 80tik 100era bitarte espezialista trebatuko dira.

Aeronautika gela egiteko, Euskal Herriko Unibertsitateak beharrezkoa izan du Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bilbao Bizkaia Kutzaren ekarpena. Erakunde horiekin asteon sinaturiko hitzarmenean jasotakoaren arabera, euren pentzudan izango dira teknologia ekipamendua eta ikastaroetarako dirua ere.

EHU

Arte Ederretako ikasleek argizari galduzko galdaketa ikasi ahal izango dute, Eibarren

Erredakzioa/Bilbo • Euskal Herriko Unibertsitatean Arte Ederrak ikasten ari diren 20 ikaslek aukera izango dute Brontzearen fundizioa argizari galduzko galdaketaren bitartez izeneko ikasgaia egiteko.

Ikasgaiaren alderdi berria eskolak emango diren lekuak dakar: unibertsitatean izan beharrean, Alfa-Arte enpresak Eibarren duen lantegian izango dira.

Argizari galduzko galdaketaren nondik norakoak azaltzeko ikastaroaren xede da, batetik, gaiaren gaineko oina-

rrizko ezagutza bermatzea parte-hartzaileei; horretarako, urratsez urrats antolaturiko ikastaroa egingo dute Eibarren: moldeak eta horiek igeltsu, alginato eta silikonatan lantzea; argizariak lortu eta manipulatzeko; fundizio-arbolak antolatzea; egindako piezak fin-tzea...

Bestetik, unibertsitateak eta Alfa-Arte antolaturiko ikastaroak helburu hau dauka: teknikak eta prozesu artistikoak eta sortzaileak uztartzea.